


# POETRY II (14 POEMA GRAFIKO)


Xabier Galarreta



Lege-Gordailua: SS-0665/04



Leku guztietatik igaro nintzen eta  
ez nuen merezi zuen ezer aurkitu.  
Leku guztietan begiratu nuen eta  
ez nuen merezi zuen ezer kausitu.  
Garbi dago: ez nuen jakin leku  
egokitik igarotzen ezta begiratzen  
ere. Leku guztietatik igaro nintzen.



Petrolioak du urrea balio  
hori dena balitz, gaitz t'erdi  
odolak adina baitu bere prezio  
aldiz guk inolaz ere ez etsi.

Itsas-neskek ikusi dute nire itsasontzia  
urruntzen, nik neronen herria urruntzen  
ikusi nuen bezala. Itsaso zabalean  
galdurik nabil, ezer espero ez dudala.  
Olatuen kankak ditut lagun,  
eta bakardadea eskifai bakar.




Nork nahi du nirekin  
konpartitu itsasoko  
ordu latzak? Nork  
nahi du deserrirako  
bidea nirekin hartu  
eternidaderako?  
Zoroak akaso...

Hortxe, enbata lehertzen den  
itsas leize horretan aurkitzen ahal  
dut aldi bateko bakea, izadiaren  
indarrak pentsamendua  
galarazten didanean, iraganeko  
zurrumuruak iraungi, oroitzapenak  
itzaldu, eta Herioak bere begirada  
nigan jarrita, burua makurrazten didanean.




Eguzkia joan da betiko  
inork ez daki non den  
«ilargiarekin egin du ihes»  
diote mihi-gaiztoek.




Horiei nik kasurik ez  
alferrean dute plazer  
nire maitalearen zinaz  
ez dut dudik bat ere.

Harriek amets dagite  
gau sakonean  
gogoraturik  
iragan denborak.



Harriek dute bihotzean min  
gizakiaren enda madarikatuak  
utzi baitizkie oroitzapen larri ugari  
eta horregatik, orain, harriek dute min  
bihotzean,  
gogoraturik gizakien bihotzak  
zeinen harrizkoak ziren.



*Afrika idatzi dut penaz  
papertxo honetan, eta  
atzera irakurri dudanean,  
ez dut topatu lazzeria hutsa  
baizik, odolez eta besteen  
sufirimenduaz landua den  
kontinente oso baten oihua,  
basamortuaren erdian.*



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.



Herría lo dago  
zerbaiten esperoan  
bertako gizonak bezala  
inolz heltzen ez den  
eta beti heltzen den  
azken une horren zain,  
errukiaz harantzago.




Hitzak agertzen dira  
ta segituan desagertzen  
gure patua antzekoa da:  
une batez eder.



Nork esango dio loreari  
"ni zure aldean bai eder"  
horrela egiten duenak  
ez daki bera nor den.


"Emadazu musutxo bat"  
esan dio Lorek Eguzkiari  
"Apar hadi nire maite-bidetik  
ez baduk nahi kiskali".




Lore-hostoak dira  
bizitzaren antzekoak  
banan-banan erortzen  
egunez egun galtzen  
aparra gelditu arte.



Maskarak daramatzagu  
bat, bi, hiru... gure barruan  
zer diren inoiz ez dakigu,  
ez badigu salatzen ispiluak.




Urteak dira mozorro bikain  
nahi ez dugunari atzea eman  
eta desiran duguna atxiki erraz  
beraz nork nahi du ezer jakitea?



Neska polit bat ezagutu dut  
ez dut esango haren izena  
bestela andreak -arriskua dago-  
gauza guztietaz ohartzea.

Gordeko dut beraz nire golkorako  
ditxosozko neska horren izena  
eta neronentzat gorde ere bai  
ematen didan plazerra.



(A, zer giroa // lanean beti // aukera izanda // nahiago dut hil)



LEIHO ZAHAR HONETATIK  
IKUSTEN DUDAN MUNDUAK  
BEHIN ETA BERRIZ BIDALTZEN  
DIT ASPERGARRI DEN MEZUA.

ESANGO DIZUT BI HITZETAN  
LABURBILDUZ TA PRESAKA  
EZ DUDALA IZAN NAHI BERRIRO  
BIZIRIK HILDAKO ITZALA.

**ZABOR ONTZI  
HORRETAN  
NIRE ZORIONA  
DAGO.  
MESEDEZ,  
ERRESPETA EZAZU**





BIZITZA BIDAIA KAZKARRA DA

